

## Areatan, 1998ko uztailearen 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
J. San Martin,  
I. Sarasola,  
J. M. Satrustegi  
eta L. Villasante  
euskaltzainak  
eta  
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,  
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea (3. gaian)  
eta R. Badiola, argitalpen eragilea (5. gaian)

Areatan, Udaletxeko batzar gelan bildu da Euskaltzaindia 1998ko uztailearen 23an, goizeko hamar eta erdietan, hileroko batzarra egiteko. Ezkerreko zutabearen jaso dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute M. Azkaratek, F. Krutwigek, Tx. Peillenek, P. Salaburuk eta A. Urrutiak.

### *Aurreko bilerako agiria onartzea.*

Ekaineko agiriari ez dio inork oharririk egin. Horrenbestez, ontzat eman da.

Hala ere, hilero banatzen den "Azken batzarreko hizkuntz arauak" delakoan huts larria somatu da. Izan ere, banatu den "Euskara batuaren ahoskera zaindua" testua, onartutako zuzenketarik gabe banatu zaie euskaltzainei. Arauok, berez, agiria-  
ren parte direnez, ongi begiratu beharko lirakeke beti. Oraingoan, ezin onartuzkoak gertatu dira. Hurrengo bilerarako testu egokia ekarriko da eta orduan onartuko.

### *Euskaltzainburuaren hitzak.*

Ondoren, euskaltzainburuak Jon Etxaide, euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman du. Hileta elizkizunetan Euskaltzaindiaren ordezkari-tza on bat izan zen. Hilberri txostena J. San Martin jaunak egingo du.

Bestalde, zorionak eman dizkio Satrustegi jaunari, egoitza Moskun duen Nazioarteko Hizkuntza Akademiako kide izendatua izan baita.

Zorionak eman dizkio, halaber, Charritton jaunari, Labayru elkarteak Derion eskaini dion omenaldia dela eta.

### *1. Hizkuntza arauak.*

#### *1.1. Hiztegi Batuko lorrin, luizi eta luto hitzei buruzko erabakia.*

Hirukote horretako lehenbiziko hitzari buruz Sarasola jaunak *corpuseko* datuak ekarri ditu. Hitz horren esanahia argitzeko, adibide egokiak nahi zituen Euskaltzaindiak.

Ugari omen dira adibideak. Azkenean, honako argitasun hauek ematea erabaki da: **Lorrin Bizk.** izond. *Eguraldi lorrina*; 2. Iz. *Satorrak soroan lorrinak egin ditu*.

*Luizi/lubizi* arazoan datuak erdibana ageri omen dira. Euskaltzainen iritziak ere bai. Azkenean, bozkatu da eta honako hau izan da emaitza: *luizi* formaren alde, 7 boto. *Lubizi*-ren alde, 4. Bost euskaltzainek ez dute iritzirik. Hortaz, *luizi* forma onartu da.

*Luto/lutu* eztabaida etorri da ondoren. Gutxi gorabehera, *luto* Gipuzkoa aldekoa dela ematen du eta *lutu*, Bizkai aldekoa. X. Kintanaren iritziz, *lutu*-k fonetika jatorragoa erakusten du. Eta gipuzkeraz gehiago ageri bada, euskalki horretan gehiago idatzi delako da. Nolanahi ere, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: *luto*-ren alde, 10 boto; *lutu*-k, berriz, bi boto izan ditu alde. Beraz, *luto* forma hobetsi da.

### 1.2. *Maldizio - matrikulatu zerrenda.*

Zerrenda honi dagozkion oharrak, nonbait, ez zituen Euskara Batuko batzordeak tratatu. Hala ere, astia denez, bileran bertan aztertzea proposatu du Sarasola jaunak.

Lehenbizi, X. Kintanak egindako oharrak hartu dira aztergai.

*Malerus/malurus* auziaz, Kintana jaunak Iparraldeko euskaltzainei galdetzea proposatzen du. Hauen arabera, lehenbizi, *malurus/maluros* bikotea genuke. Bikote honetan lehenbiziko aldakia gehiago ageri da bigarrena baino. *Malerus* forma, berriz, zubererazkoa litzateke. Gauzak horrela, zerrendan ageri dena izango litzateke zuzena: *malurus* forma nagusizat hartu da aho batez. *Malerus*-en sarreran, berriz, *Zub.* h. **malurus** agertuko litzateke.

*Margolari* = *pintore* delako azalpenak *pintore/pintatzaile* eztabaida dakar. Dena dela, *margolari* hitzak inongo argitasunik ez duela behar erabaki da. Horrenbestez, *margolari* sarrera soila emango da. Bide batez, *margolan* hitza ere eranstea erabaki da.

Kintana jaunak *mari*-ren sarreran beste zenbait azpisarrera eranstea eskatzen du. Idatzizko lekukotasun gutxi omen dago. Dena den, zerrendan ematen direnei *mari-zikin* eta *mari-matraka* gehitzea onartu da. Baina azpisarrera gisa eman beharrean, adibide gisa emango dira, kurtsibaz, bata bestearen segidan eta puntu eta komak tartekatuz.

Bestalde, *maritzar* hitza ere sartuko da bere lekuan, 'emagaldua' adierarekin. Adibide gisa, honako hau emango da: *maritzar adinbat manestzar bada munduan*.

*Mastadi* hitza, ohargilearen ustez, berria da. Nolanahi ere, *mastadi* = *mastak* jarri beharko litzateke. Onartu da, nahiz eta *mailadi*-rekin modu berean jokatu ote zen ziurtatu behar den.

*Matematiko/matematikari* sarreretan ohargileak eskatzen dituen oharrak ezartzea onartu da. Horrela, **matematiko** izond. *kalkulu matematikoak*. **Matematikari**, iz. agertuko da.

H. Knörr-en oharrak hartu dira ondoren eztabaidagai.

Lehenbiziko oharra *maleta* sarrerari dagokio: 'baliza txikia' esan nahi omen luke. Erabaki da *maleta* hitza soil soilik ematea, *baliza* hitzari erreferentziarik egin gabe. Baina zerrendaren azterketa amaitzen denean, B letran *baliza* sarrera ikusi eta han honako oharrok ezarriko dira: **baliza**, 1. 'maleta'; 2. 'estropadetako zera'.

*Mamala* sarrerari "Herr." oharra eranstea onartu da.

*Mami* sarrera osatzea onartu da.: **Mami** 1. iz. *ogiare*n *mamia*; 2. Gip. iz. 'gatzatua, gaztanbera'; 3. izond. *adiskide* *mamia*.

*Mamarro* hitza bigarren itzulirako utzi da.

*Mamurtu* sarreran 'hausnartu, gogoeta egin' adiera ere baduela esango da. Bestalde, *mamutu* sartzea ez da onartu.

*Mandil* sartzea onartu da. **Mandil**, *Ipar*. 'bide lapurra, gizatxarra'.

*Manifestatu* hitzak eztabaida gogorra sortu da. Azkenean botoetara jo da. Hamaika euskaltzain agertu dira *manifestatu*, dagoen dagoenean uztearen aldeko. Baina *manifestari* hitza kendu egingo da. Bestalde, *manifestazio*-ren sarrera honela osatua geldituko da: **manifestazio** = (kale)agerraldi.

*Mantartu* hitza bigarren itzulirako utzi da. *Mantar* hitzari "zah." oharra ezabatzea onartu da.

*Mantso*-ri oharrak ez gehitzea erabaki da. *Mantxot* eta *mari-aker*-i buruzko oharrak ere ez dira onartu.

*Marrega* hitza sartzea onartu da: **Marrega** 'artilezko oihal arrunta'. Hain zuzen, forma honi emango zaio lehentasuna. Horrenbestez, *marraga*-ren sarrera honela utziko da: **marraga\*** e. **marrega**.

*Masaje* hitzak *-aia* bukaeraren arazoa dakar berekin. Hitz hori zerrendatik kentzea onartu da. Hamaika boto izan dira kentzearen alde eta bi, gordetzearen alde.

*Masoi* hitzari ezer ez zaio gehituko.

*Mato* hitza sartzea onartu da: **mato** *Ipar*. 'makila lodia'.

*Matoi* ere sartuko da 'gazta egiteko gatzatu bildua' adierarekin.

*Matraila* sarrera dela eta, zenbait aldaketa onartu dira. Batetik, **matela** *Ipar*. 'masaila'. Gero, **matrail**, 'masaila'. Eta azkenik, **matraileko** (ez *matrailako*).

Ondoren, A. Urrutiaren oharrak ekarri dira mahaira.

*Malmutz* hitza sartzea onartu da: **malmutz**, 'maltzurra'.

*Malta* hitzari ere leku egingo zaio zerrendan.

*Malur*-en azken kontsonantearen balioaz egiten duen oharra ez da kontuan hartu.

*Managaitz* zerrendara biltzea ez da onartu.

*Manipulatu* hitza sartu ala ez eztabaidatu da. Azkenean hamahiru euskaltzainen botoz ez sartzea erabaki da.

*Mara-mara* sarreran honako adibide hau ezartzea onartu da: *elurra mara-mara ari*.

*Marapilo* bizkaierazko hitza sartzea onartu da: **marapilo**, *Bizk*. 'korapiloa'.

*Maratz* sarrerari zenbait argibide eranstea nahi du ohargileak. Ez da onartu.

*Marijesi* sarrera osatzea onartu da: **Marijesi** pl. 'Gernika aldeko gabon kantak'.

*Marisa/marixu* sartzea bigarren itzulirako uztea egokiagotzat eman da. *Marketing* hitza ere bigarren itzulirako utzi da.

*Marraskari* eta *marraskatu* hitzen ondoan *marraska* izena ere sartu beharra ikusten du ohargilak. Onartu da. Honako argibide honekin: batez ere *Ipar*. 'orroa' *nigar* (-) *marraskak*.

Azkenik, eztabaidarako markatuak ziren hitzak aztertu dira.

*Maneiatu/manaiatu/maneatu* hitzen inguruko auzian, *manaiatu* hitza ezabatzea onartu da. Beste biak zerrendan jasoak dauden bezala utziko dira.

*Mantenimendu*-ren inguruko eztabaidaren ondoren honela geratu da sarrera hori: **Mantenimendu\*** e. **mantentze**.

Bestalde, *mantentze* hitza ere sartuko da: **mantentze**, *mantentze(-)lanak*.

*Mantenu*-ren sarreran, berriz, *mantenua eta soldata* bezalako adibide bat erantsiko da.

Horrenbestez, onartutzat eman da *maldizio-matrikulatu* zerrenda.

### 1.3. Onomastika.

Ontzat eman da Onomastika batzordeak uztailaren 3an hartutako erabakia Herberetako bigarren hiriburuaren euskal exanimotzat *Haga* izena eskaintzen zuena.

### 2.1. Doneztebeko jardunaldiak.

Lizundia jaunak eman du Euskaltzaindiren II. Euskalegunen 75. urteurrena ospatzeko Donezteben irailean egingo diren ekitaldien berri. Euskaltzaindiaren hileroko bilkuraz gainera IV. Ahoskera Jardunaldiak ere bertan izango dira.

### 3. 1999ko Aurrekontuen onarpena.

Zearreta jaunak eman ditu zenbait xehetasun. Alde batetik, informatizatze plangintzaren kostua gehitu zaio aurrekontuari. 6. atalerako ere beste aldaketa bat egitea eskatu da: hain zuzen, Euskaltzaindiak maiz prentsara agertu beharko duenez ordaindutako iragarkien bidez, honetarako diru bat ezartzea. Horretarako bi milioi ezarri dira.

M. Azkaratek 750.000 gehitzea eskatu du Jagon sailerako, Euskaltzaindiak bere sorreratik hartutako hizkuntz erabakiak biltzen hasteko.

Gehiketa hauekin bozkatu da aurrekontua. Charritton jaunak bere desadostasuna erakusten du, Gramatika batzordearen lanei zor zaien lehenetasuna ematen ez zaielakoan. P. Goenagak eta J. L. Lizundiak erantzun diote: aurrekontu hau herri aginteei aurkezteko da. Hortik aparte, bada beste asmo bat, zeinentzat kanpora joan baita diru bila Euskaltzaindia.

Bozketaren emaitza honako hau izan da: hamalau boto alde, kontra bat ere ez eta hiru, zuri.

#### 4. *Eskuartekoak.*

##### 4.1. *Euskararen Aholku batzordearen berritzea dela eta.*

EAE-ko Euskararen Aholku batzordearen Batzorde Osoko eta Toponimia Batzorde-ataleko bokalen kargualdia amaitzen denez, M<sup>a</sup> Karmen Garmendia kontseilari andreak Euskaltzaindiak bere ordezkariak izendatzeko eskatu du. Zuzendaritzak orain arte aritu direnek berek (J. Haritschelharrek eta H. Knörrek) jarraitzea proposatzen du. Aho batez onartu dute euskaltzainek proposamen hau.

#### 5. *Azken ordukoak.*

##### 5.1. *J. San Martinen Giro gori liburuko huts zuzenketak.*

San Martin jaunak bere *Giro gori* liburuan gertatu diren inprimaketa hutsegiteak zuzenduz zerrenda bat banatu die euskaltzainei.

##### 5.2. *Euskalerrria irratia.*

H. Knörrek Nafarroako *Euskalerrria* irratitari FM lizentziarik eman ez zaiola eta proposamen bat aurkeztu du batzarrak onar dezan. Hala onartu da.

Nolanahi ere, Charritton jaunak arazoa zabalagoa dela uste du eta bihotzak besteaz ere zerbait esatea eskatzen diola: berrikitan beste irratia bat isalarazi dute eta Euskaltzaindiak ere, behar bada, zerbait esan beharko luke. Ondoren Satrustegi jaunak hartu du hitza. Lehen, irratia baimenak banatu zirenean, Nafarroako Euskararen Aholku batzordean dimisioa aurkeztu zuen. Orain Euskaltzaindiaren izenean dagoenez, bere ordezkor bait izendatzea eskatzen du. Erantzun zaio lehenbizi presidenteari adierazi beharko liokeela eta gero Euskaltzaindiak proposatuko lukeela ordezkoa. Horretan geratu da kontua.

##### 5.3. *Azkenik, argitara berri den Euskal Deituren Izendegia izeneko liburua eta Oroitidazkiaren zirriborroa banatu zaizkie euskaltzainei.*

Ordu bi eta erdietan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga